

Errf.: Plegu\_Tek\_renting-5\_BH-BT

**ESPEDIENTE MOTA:** Administrazio kontratazioa.  
**Kontratua:** Ibilgailuen hornidura, renting sistema bidez.  
**Espediente zenbakia:** 72-2017

---

**BERMEOKO UDALAK ERABILTZEKO 5 IBILGAILU BERRIREN  
HORNIDURA RENTING BIDEZ (MANTENUA BARNE) KONTRATATZEKO  
BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratu honen helburua 5 ibilgailuen errentamenduari dagokio, Zerbitzu Sailaren erabilerara zuzenduta, honako lote ezberdinetan bananduta:

1 Lote:

2 ibilgailu erratz-makina *Schmidt Swingo 200 Plus* (2 m<sup>3</sup>).

2 Lote:

3 ibilgailu misto, "combi" furgoneta erakoak.

### **2. KONTRATUAREN EPEA**

Errentamendu kontratuaren iraupena 48 hilbatekoa da, ibilgailuen ematea Bermeoko Udaleko instalazioetan gauzaten den egunetik hasita.

### **3. IBILGAILUEN EMATEA ETA HONEN EPEA**

Esleipendunak, kontratu sinatzen duen egunetik 40 egunetako epean ibilgailuen ematea egin beharko du Bermeoko Udaleko instalaioetan, Landabaso A industrigunean, 48370 Bermeo.

Ibilgailuak berriak izango dira plegu hauetan finkatzen diren ekipamenduarekin. Halaber, guztiz legalizatuta eta matrikulatuta eman beharko dira.

### **4. IBILGAILUEN BALDINTZA TEKNIKOAK**

#### **1 LOTE**

<b>Zenbat</b>	2
<b>Mota</b>	Erratz makina <i>Schmidt Swingo 200 Plus</i>
<b>Erregaia</b>	Gasolioa
<b>Motorra</b>	VM R754 ISE4 EuroMot 3B – 3.0 litro (310 Nm gutx.par-a)
<b>Potentzia</b>	55 kW (75HP)
<b>Neurriak</b>	Luzera 3 erratzarekin 5.000 mm



<b>Transmisioa</b>	Hidrostatikakoa
<b>Kubaren edukiera</b>	2 m <sup>3</sup>
<b>Erratzak</b>	3
<b>Gutxieneko ekipamendua</b>	Intsonorizazio kit-a Aulkia buru-euskarriduna Bolante pomoduna 3 lan-ispilu Argi birakor edo disdira jaurtitzaille tolesgarria Gidariaren aulki neumatikoa Haize girotua kabinan edo kilmatizadora Esku-libreko komunikazio sistema (Bluetooth) Atzeko kamara eta pantaila kabinan Disko-balazta aurreko gurpiletan Direkziozko 4 gurpil Ureztatzeko ur garbiko sistema Ura birzirkulatzeko sistema (SCHMIDT) Zurgatzeko aho zabala Zurgatze mangotea Ordezko gurpila Ura kargateko tutu malgua Esekidura (suspensioa) mekanikoa Koipeztaketa zentralizatua Interface CAN-BUS sistema Autodiagnostiko sistema (pantailan bertan) Kolorea: zuria, RAL 9016 Matrikula Bermeoko Udaleko irudi korporatiboa serigrafiatuta
<b>Bestelako ezaugarriak</b>	Lan abiadura: 0-14 km/h Joan-etorrietarako abiadura: 0-40 km/h

Prestakuntza eta abiaraztea eskaintzaren barnean daude.

Halaber, honako araudiak betetzen direla egiaztatzeko ondorengoak aurkeztu beharko dira:

2006/42/CE zuzentarauaren araberako CE ziurtagiria  
2000/14/CE soinu jaulkipenen CE ziurtagiria

## 2 LOTE

<b>Zenbat</b>	3
<b>Mota</b>	Ibilgailu misto, "combi" furgoneta (Berlingo, Caddy, Kangoo, Tourneo...) 5 eserleku, 4-5 ate.
<b>Erregai</b>	Gasolia
<b>Motorra</b>	55 kW (75HP) 1400cc
<b>Neurriak</b>	Luzera 4.135 mm
<b>Karga-bolumena</b>	1.950 l
<b>Abiadura-kaxa</b>	Eskukoa, 5 abiadura
<b>Trakzioa</b>	Aurrekoa
<b>Gutxieneko ekipamendua</b>	Direkzio lagundua Aurreko eta alboko airbag aurreko tokietan Itxiera zentralizatua



Klimatizadora  
Beira-jasogailu elektrikoa  
Lainotako aurreko eta atzeko argiak  
ABS edo segurtasun ekipamendu baliokidea  
Argi birakorra edo distira jaurtitzaila  
Irrati-CD  
Esku-libreko komunikazio sistema (Bluetooth)  
Diskozko frenoak  
Giltzak, hiru ale.  
Atoiarentzako bola  
Auto parrila edo *baca* delakoa  
Kolora: zuria, RAL 9016  
Matrikulatuta  
Bermeoko Udaleko irudi korporatiboa serigrafiatuta

Adierazitako neurri eta ezaugarri teknikoak gutxienekoak dira. Ibilgailuek trafiko araudiek finkatzen dituzten elementu oro eta ordezkokoak izan beharko dituzte (txaleko islatzaileak, triangeluak, argiak...).

## 5. ERRENTAMENDUAREN BALDINTZAK

Errentamenduak honako kontzeptuak barne hartu beharko ditu:

- I. Ibilgailuen **ERABILERA** berme osoarekin. Ibilgailuak errentatzailearen izenean egongo dira matrikulatuta eta une oro egoera onean eta egokian egon beharko dira, funtzionamenduari dagokionez zein arlo administratiboari dagokionez. Erabili ahal izango dira normaltasunez eta legeak finkatzen dituen eskakizunen arabera.
- II. Ibilgailuen **ERABATEKO MANTENUA**, marka bereko tailer edo kontzesionario ofizilalean egingo dana. Horretarako eta ezinbesteko baldintza lege, Bermeoko Udalerrian kokatutakoen artean izendatuko dau esleipendunak, plegu honetan jasotako salbuespenak salbuespen.
  - a) Aldizkako ikuskapen edo rebisio guztiak, ibilgailuaren mantenimendu liburuak xedatutakoa, bai ordezko piezak eta likiduak, bai eskuko obra, nahiz eta fabrikatzailearen bermepean egon edo ez. Gehienez 48 ordutan.
  - b) Matxura guztien konponketa, ibilgailuaren erabilerarengaitiko higadurak eraginak. Gehienez hiru lanegunetan.
  - c) Txapa eta markoketako konponketa garrantzitsuetan, gehienez 5 lanegunetan, ezbeharraren peritaziotik zenbatuz.



- d) Gurpilen aldaketa, “Dirección General de Trafico”-k xedatutako arauen arabera, edo segurtasunagaitik egoerak horrela eskatzen badau, eta edozein kasutan 40.000 kilometroro.

1 Lote-ri dagokionez, ez da baldintzatzen mantenua emateko zerbitzuaren kokapena, makina bereziak diren heinean, esleipedunak etxearen irizpideak jarraituko ditu, baina, makinak une oro egoera ezin hobean egon beharko dira. Edozein kasutan, orokorrean, adierazitako epeak bete beharko dira, bereziki, mantenu eta akats arruntei dagokienez. Ibilgailua zerbitzutik kanpoko egoerean finkatutako epeak gainditzen direnean, 24 orduetan jakinarazi beharko du zein den makinaren egoera eta zein irtenbide aztertu eta planteatzen duen; egoera astebete bat baino gehiago luzatzen bada, zerbitzua ez den ematen heinean, ordainketari dagokionez hileko koutatik behar den deskontu proportzionala egingo da.

2 Lote-ren kasuan, konponketa, mantenimendu edota gurpil aldaketa lanak burutzeagaitik, ibilgailua zerbitzutik kanpoko egoerean finkatutako epeak gainditzen direnean, ordezeko ibilgailua hornituko da.

Erabateko mantentutik kanpo geratzen dira erregaiaren hornidura eta garbiketa gastuak.

III. Ibilgailuaren **ASEGURUA**k gutxienez ondorengoak bermatuko ditu:

Aseguru polizek, gidariari jagokonez, gitxienez ondorengoak bermatuko dauz:

Heriotza: 18.030€

Ezintasun Iraunkorra(I.P) 18.030€

Aldi baterako Lanerako ezintasuna (I.L.T) 27,05€/egun.

I.L.T.-a istripua gertatzen dan lehen egunetik hasita ordainduko da, gehienez hamabi (12) hilabeteetan.

Esleipendunak ezin izango dau polizaren baldintzak aldatu alokatzailearen kaltetan.

Edozein aldaketa aseguru polizan, Administrazioaren onetsia izan beharko dau aurretiz.

Esleipendunak aseguru konpainiaren barri emon beharko du administrazioari, polizaren agiriak eta garantiak azalduz. “Autoseguro” modalitatea debekatuta dago.



Bestalde, loteka, honako hau bete beharko da:

1 Lote

- a) Derrigorrezko erantzukizun zibila.
- b) Mugagabeko Borondatezko erantzukizun zibila.
- c) Trebetasun falta edo zabarkeria.
- d) Energia elektrikoaren zuzeneko ekintza (zirkuitulaburrak, gaintentsioak edo antzekoak).
- e) Lapurreta, lapurreten kalteak, pertsonak zein gauzek jasandakoak.
- f) Kolpeak, irauliak, erortzeak, kalte nimiñoak eragiten direnak salbuetsita.
- g) Urak eragindako kalteak.
- h) Normaltasunetik kanpoko funtzionamendua, esaterako presio lar edo presio falta, ur falta sisteman, akatsak koipeztaketan, piezen lasaiketa, gainberotze eta bestelako akatsak funtzionamendu normalean.

2 Lote

- a) Derrigorrezko erantzukizun zibila.
- b) Mugagabeko Borondatezko erantzukizun zibila.
- c) Ibilgailuak jasandako kalte propioak eta kontratuko gehigarri guztiak barne.
- d) Talka egitearen kalteak.
- e) Bidaiariak, defentsa eta kalteen erreklamazioak.
- f) Ibilgailuaren lapurreta eta haren osagarriak.
- g) Beiren haustura.
- h) Sutea



- IV. 24 orduko **ASISTENTZIA ERREPIDEAN**, estatu mailan.
- V. 2 Lote-ren kasuan ezaugarri bereko **ORDEZKO IBILGAILUA**, operatibitatearik gabe geratzen denetik 7 egunera, edozein kasutan.
- VI. Ibilgailuari ezarri ahal jakozan **ZIGOR**rei buruz, zera aplikatuko zaio:
- a) Ibilgailuaren egoeraren ondorioz datozen zigorrak, bere agiri administratiboetatik, eta baita indarreko legeak derrigortzen dauzan errebisio faltagaitik ere, esleipendunaren kontura izango dira.
  - b) Ibilgailuaren gidatzearen ondorioz datozen zigorrak, administrazio honen kontura izango dira.
- VII. Alokatzailerak ondorengo betebeharrak bere kargu hartzen dauz:
- a) Ibilgailuaren mantenimendu liburuko errebisioak eskatzea.
  - b) Edozein matxuraren barri emotea.
  - c) Ibilgailua tailerrera eroatea, ibilgailuak berak ahalbidetzen dauanean.
  - d) Eskatzen dan informazio guztia emotea, urtero egindako kilometroez, eta bestelakoak ere kontratu hau hoberen burutuz.
  - e) Eskatzen danean, edozein prozeduretan aurkeztea, salaketa-egile, auzijartzaile, salaketa-hartzaile, demandatu, edo lekuko gisa, kasuan kasu.

## **6. URTEKO ERABILERAREN ORDU KOPURUA EDO KILOMETRO KOPURUA**

1 Lote: Urteko erabilpen ordu kopurua 1.800 izango da.

2 Lote: Urteko kilometro kopurua 15.000 izango da.

## **7. LIZITAZIO OINARRIZKO AURREKONTUA**

Lizitazio oinarrizko zenbatekoa honakoa da (prezioak BEZ gabe):

1 Lote:

2 ibilgailu erratz-makina *Schmidt Swingo 200 Plus* (2 m<sup>3</sup>).



- Hileko zenbatekoa ibilgailuko: 3.190,00 €
- Kontratuaren hileko zenbatekoa: 6.380,00 €

## 2 Lote:

3 ibilgailu misto, "combi" furgoneta erakoak.

- Hileko zenbatekoa ibilgailuko: 690,00 €
- Kontratuaren hileko zenbatekoa: 2.070,00 €

LOTE	Ibilgailu kopurua	ZENBATEKOA hile/ibilgailu (€)	ZENBATEKOA Lote/hile (€)	KONTRATUA GUZTIRA (€)
1. Lote	2	3.190,00	6.380,00	306.240,00
2. Lote	3	690,00	2.070,00	99.360,00
			<b>GUZTIRA:</b>	<b>405.600,00</b>

EKITALDIA	HILEKO KOPURUA	GUZTIRA (€)
2017	12	101.400,00
2018	12	101.400,00
2019	12	101.400,00
2020	12	101.400,00
<b>GUZTIRA (€)</b>		<b>405.600,00</b>

Kontratuaren zenbatekoa epealdi guztia kontuan hartua laurehun eta bost mila eta seirehun eurekoa da, BEZ kanpo (405.600,00 €), BEZari dagokion diru kopurua laurogeita bost mila, ehun eta hirurogeita sei euro.

## 8. OSAGARRIAK

Ibilgailuak Pleguaren 4. Klausulan adierazten diren osagarriekin hornituko dira, baita hobekuntza moduan eslependunak gehitu dituenak beraren eskaintzan ere. Osagarriak ibilgailuaren zati bat dira, efektu guztiekin.

## 9. ESLEIPENAREN IRIZPIDEAK

Kontratu honen esleipenerako beheko zerrendako irizpideak hartuko dira kontuan:

- Proposamen ekonomikoa: 60 puntu gehienez.
- Proposamen teknikoa: 30 puntu gehienez.



- Hobekuntzak: 10 puntu gehienez.

**FORMULA MATEMATIKOEN BIDEZ KUANTIFIKATU AHAL DIREN IRIZPIDEAK: Gehienez 60 puntu**

**1 -) ESKAINTZA EKONOMIKOA: 60 puntu gehienez.**

Eskaintzarik onenak 60 puntu hartuko lituzke eta beste eskaintzak alderantzizko hiruko erregela erabilita puntuatuko lirateke.

Ez dira lizitazio oinarritik goragoko eskaintzak onartuko.

**FORMULA MATEMATIKOEN BIDEZ KUANTIFIKATU EZINEZKO IRIZPIDEAK: Gehienez 40 puntu**

**1 -.) PROPOSAMEN TEKNIKOA. Gehienez 30 puntu.**

**Ibilgailuen ezaugarri teknikoak. Gehienez 15 puntu.**

Plegu honetan jasotzen diren ezaugarriak gutxienekoak direla kontuan hartuta, eskaintzak baloratu dira ibilgailuen erreferentzi teknikoaren arabera. CO<sub>2</sub> emisioak ere kontuan hartuko dira, ahalik eta emisio txikien lortu nahian.

**Asistentzi teknikoaren zerbitzua eta mantenua. Gehienez 15 puntu.**

Atal honetan emango den mantenua eta asistentzi teknikoa baloratuko da zentzu zabalean, kontuan hartuta proposatutako baliabideak zein nondik emango den zerbitzua bera. Kontuan hartuko dira berehalako zerbitzua bermatzeko zer nolako planteamenduak egiten diren lizitatzailleen aldetik.

**2 -.) HOBKUNTZAK. Gehienez 10 puntu.**

Pleguaren gaineko hobekuntzak ibilgailuen **ekipamenduari** dagokionez. **Gehienez 5 puntu.**

Pleguaren gaineko hobekuntzak eskaintako **aseguruari** dagokionez. **Gehienez 5 puntu.**

Bermeon, 2016ko azaroaren 3an.

Zerbitzu Saileko teknikaria.

